Getxo
ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA
bizi ezazu

# MED
Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 19
Urtea/Año 2013
Abendua/Diciembre

### LEHEN EBALUAZIOKO TXOSTEN PEDAGOGIKOAK

*Ebaluazioa funtsezkoa da guretzat, irakaskuntza-prozesuan ikasitakoa baloratu eta, dagokionean, hobetzeko bideak eta tresnak proposatzeko beharrezkoa den etenaldia egiteko aukera ematen baitigu. Lehen hiruhileko honi dagozkion txosten pedagogikoak posta elektronikoaren bidez jasoko dituzue, abenduaren 16ko astean.*

## OROIGARRIAK

Joan den azaroaren 16an, Tafallako eta gure Musika Eskolako bandek ongintzazko kontzertu ederra eskaini zuten, Kongoko Kanseniako misioaren alde. Eskerrik asko guztioi zuen elkartasunagatik.

"Andrés Isasi" Abesbatzak ere kontzertu polita eman zuen, Miriam Cepeda organo-jotzailearekin batera, Abadiñoko San Trokaz elizan, Gabriel Fauré-ri eskainitako programa batekin.

Abendua beti da hilabete berezia, askorentzat urteko oporraldi zirraragarriena bertan dagoelako. Eskolak 20an amaituko direla gogoratzen dizuegu.

Abenduaren 6a ere jaieguna da. Aurten ez dago zubirik. Urtarrilaren 8an itzuliko gara.

## ZUHAITZ SOLIDARIOA

Gure aurtengo Gabonetako Zuhaitza piztuta dago jada. Santa Zezilia eguneko emanaldian piztu genuen. Ohikoa ematen du. Baina ez da horrela; berezia egin dugu, zuen solidaritatea bilatuz; oraingo honetan, haurrentzako gaiak (janariak, pixoihalak...) bertan uztera gonbidatzen zaituztegu, hain hulbil ditugun familia hauek Gabon hauetan babestuago senti daitezen. Zuetako askok eman duzue urrats solidario hau. Zuhaitza, abenduaren 20ra arte izango da piztuta. Anima zaitezte.



## VI NEGUKO BIDAIA

VI Neguko Bidaia irteera-puntuan dagoela gogoratu nahi dizuegu. Datorren urtarrilaren 18an, larunbata, hasiko da, otsailaren 22ra arte iraungo duelarik. Hurrengo zenbakian izango duzue berri gehiago. Geure kontzertu-solasaldiak arrakasta hutsa dira. Zuen zain gaude!

## "ANDRÉS ISASI" MUSIKA ESKOLA HIZKUNTZA BERRIA IKASI

Hiruhilekoaren amaiera bertan dago. Zuetako batzuk utzi egin behar izan gaituzue. Arazoak ordutegien bateragarritasunarekin, denbora behar duten beste jarduera batzuk... Ziur musika (edo musika-tresnaren bat jotzen) ikastea gustatuko litzaiokeen norbait ezagutzen duzuela. Gurekin ikastera animatu!

### ARRASATEKO AKORDEOI-TXAPELKETA

*Berriro ere aurten, Arrasateko Akordeoi-lehiaketan parte hartuko dugu, datozen abenduaren 6, 7 eta 8an.*




*Rafa gure akordeoi-irakaslearen eskutik, Gorka Bordegaraik eta Joanes Atxak parte hartuko dute lehiaketa honetan. Dakizuenez, bai Gorkak eta bai Joanesek zilarrezko domina lortu zuten iazko txapelketan, parte hartu zuteneko kategorietan. Zorte on hiruroi.*

## AGENDA

### Abendua

**Abenduak 4:** Piano-errezitaldia. Getxo Elkartegian, 17:30ean.
**Abenduak 5:** Piano-errezitaldia. Getxo Elkartegian, 17:30ean.
**Abenduak 6, 7 eta 8:** Kepa Bordegarai eta Joanes Atxa akordeoi-ikasleen parte-hartzea Arrasateko Nazioarteko Akordeoi-lehiaketan.
**Abenduak 9:** Jazz-kontzertu didaktikoa. 10:45ean Getxoko ikastetxeetarako. 19:00etan Musika Eskolako ikasleentzat eta gainerako ikusleentzat.
**Abenduak 10:** Flauta-errezitaldia. Getxo Elkartegian, 18:30ean.
**Abenduak 12:** Flauta-errezitaldia. Musika Eskolako Entzunaretoan, 19:00etan.
**Abenduak 13:** Bilboko Juan Crisóstomo Arriaga Kontserbatorioko ikasleen emanaldia. Musika Eskolako Entzunaretoan, 18:30ean.
**Abenduak 16:** Ibar Abesbatzaren emanaldia Sanitaseko Egoitzan, 17:30ean.
**Abenduak 17:** Ibar Abesbatzaren emanaldia Bihotz Sakratuaren Egoitzan, 17:30ean.
**Abenduak 18:** Ibar eta "Andrés Isasi" Abesbatzen errezitaldia Erromoko Nagusien Etxean, 18:30ean.
**Abenduak 18, 19 eta 20:** Eskolako ikasleen Gabonetako emanaldiak, Musika Eskolako Entzunaretoan, 18:15 eta 19:30ean.
**Abenduak 21:** Bertako tresnen ikasleen parte-hartzea Oskorriren The Pub Ibiltarian.
**Abenduak 21:** "Andrés Isasi" Abesbatzaren errezitaldia Mesedeetako elizan, 19:45ean.
**Abenduak 24:** Txistu-ikaleen parte-hartzea Olentzeroren Kabalgatan Algortatik.
**Abenduak 25:** Txistu-ikasleen Kalejira Algortatik Udal Egoitzaraino, 11:30ean.
**Abenduak 28:** Bertako tresnen ikasleen Kalejira eguerdian Getxotik.
**Abenduak 28:** "Andrés Isasi" Abesbatzaren errezitaldia Algortako Salbatzailearen elizan, 20:00etan.